



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko azaroaren 30a

147. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketak ezetsi ditu (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko 9/2010 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da kargutik berehala ken dezan Gobernuak Aragoi duen ordezkaria, erantzukizun zuzena izan zuelako, egitez eta ez-egitez, irailaren 24an izandako gertakarietan. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala abiaraz dezan jarduketa-plan bat, ziurtatuko duena abian jartzen direla Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloak lau jarduketa-mailak. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (6. or.).

—Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Mendekotasunaren Ituneko Talka Planak bilduko dituen neurriak aplikatu dituzan. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (7. or.).

—Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Hezkuntzako Goi Ikuskaritza indar dezan, modu azkar eta eraginkorrean jardun ahal izan dezan Konstituzio, bizikidetzeta edo nazioarteko itunekin

kontraesanean hezkuntza-administrazioek eginiko jarduketan aurka. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (7. or.).

- Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroatik kanpora joan behar izan duten gazteen itzultzerako eta laneratzeko pizgarriak emateko plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETAK EZETSI DITU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko azaroaren 23an, ezetsi egin ditu 2018rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak eta Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako osoko zuzenketak.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2017ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatu du presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru Lege proposamen hori presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea bere irizpidea adierazteko epea zortzi egunetakoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru lege proposamena, irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak –horren bidez onesten da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua, eta lege organiko horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sarrera-arabide iragankorra arautzen da– ezartzen dute zer sistema aplikatu behar den besteak beste Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari irakasleen kidegoetako parte izan nahi duten izangaiak hautatzeko. Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan betetzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Estatuko arau horiek, funtzio publikoari dagokionez ezarritakoaren arabera.

Araudi hori aplikatzean, behin eta berriro eta salbuespenik gabe baliatu da hautapen-sistema bat, oinarri hartu duena lanpostuak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean ezarritako hizkuntza eremuen arabera betetzeko behar diren hizkuntza eskakizunen zehaztapena.

Hautapen prozesuen kudeaketa-sistema horren arabera, deialdi ezberdin eta berezituak egin ohi dira, epaimahai berariazkoekin eta ezberdinekin, Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza erkidego bakoitzari zuzenduak, halako moduan non ekuanimitatea bermatzen baita, eskola erkidegoa mesedetzen baita eta irakasle kidegoetako parte izan nahi dutenen aukera berdintasuna ahalbidetzen baita bi hizkuntzak ez dakizkitenentzat.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da hautapen sistema hau foru lege mailako arau baten bidez

zehaztea. Helburua da Foru Komunitatearentzat, bertako herritarrentzat eta irakasle kidegoetan sartu nahi duten pertsonentzat hain garrantzitsuak eta hain erroturik dauden eskubide batzuk mantentzea eta sendotzea, hori guztia aldatzeak esku-bide horien urraketa baldar bat ekarriko bailuke.

Hortaz, bidezkoa da foru lege hau aurkeztea, zeinak artikulua bakar bat, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat baititu.

Artikulu bakarra. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak irakasle ez-unibertsitarioen lan eskaintza publikoak garatze aldera onesten dituen deialdietan aplikatzekoa izanen da otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa. Errege dekretu horren bidez onetsi zen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua, eta arautu zen lege organiko horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean aipatzen den sarrera-araubide iragankorra. Hartara, xedatu zen ezen deialdi horietan nahitaez jasoko direla hautapen prozedura

ezberdinak baliatuko direla ezagutza arlo edo irakasle espezialitate ezberdinetarako eta Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizial bakoitzerako.

Hautapen prozedura bakoitzean gutxienez ere epaimahai bat izendatuko da ezagutza arlo edo espezialitate eta hizkuntza bereki bakoitzeko, behar bezala kreditatua egonen dena deialdi zehatz bakoitzerako. Epaimahai bat baino gehiago behar izanez gero, hautapen batzorde bat eratuko da, ebaluazio irizpideak koordinatu eta adostuko dituena.

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege hau aplikagarria izanen zaie foru legea indarrean sartzen den data baino lehenago abiarazitako deialdiei, baldin eta data horretan bukatu gabe badago izangaiek eskabideak aurkezteko epea, zeina 10 egunez luzatutzat joko baita, hasierako epetik aitzina zenbatuta, deialdia foru lege hone-tan ezarritakoari egokitzeko.

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko 9/2010 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko azaroaren 23an, erabaki du aintzat ez hartzea Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko 9/2010 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, zeina Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu baitzuen eta

2017ko irailaren 22ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko azaroaren 23an, erabaki du aintzat ez hartzea Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, zeina Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak

aurkeztu baitzuen eta 2017ko urriaren 16ko 124. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da kargutik berehala ken dezan Gobernuak Aragoi duen ordezkaria, erantzukizun zuzena izan zuelako, egitez eta ez-egitez, irailaren 24an izandako gertakarietan.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak, 2017ko azaroaren 22an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da kargutik berehala ken dezan Gobernuak Aragoi duen ordezkaria, erantzukizun zuzena izan zuelako, egitez eta ez-egitez, irailaren 24an izandako gertakarietan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuko Barne Ministerioa premiatzen du:

1. Kargutik berehala ken dezan Gobernuak Aragoi duen ordezkaria, erantzukizun zuzena izan zuelako, egitez eta ez-egitez, salatutako gertakarietan.

2. Behar diren jarduketak abiaraz ditzan, Fisaltzak esku har dezan eta iker dezan Nafarroako eta Estatuko gainerako tokietako ordezkari politiko eta agintarien oinarrizko eskubideen urraketa”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala abiaraz dezan jarduketa-plan bat, ziurtatuko duena abian jartzen direla Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokolo lau jarduketa-mailak.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2017ko azaroaren 21ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala abiaraz dezan jarduketa-plan bat, ziurtatuko duena abian jartzen direla Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokolo lau jarduketa-mailak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala abiaraz dezan jarduketa-plan bat, egutegia zehaztuta eta aurrekontuarekin, ziurtatuko duena egiaz eta osorik jartzen direla abian Nafarroan emakumeen genita-

len ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloak lau jarduketa-mailak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adinako finantzaketa ziurta dezan autonomia erkidegoaren mailan entitate bakar eta erreferentziazkoa den Nafarroako Médicos del Mundo elkarteak emakumeen

genitalen ebaketa prebenitzeko daukan proiekturako, halako moduan non arlo horretan espezializatutako afrikar emakumezko bitartekarien ezinbesteko lanak bere horretan jarraituko baitu”.

Iruñean, 2017ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Mendekotasunaren Ituneko Talka Planak bilduko dituen neurriak aplikatzen.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko azaroaren 23an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Gobernua Mendekotasunaren Ituneko Talka Planak bilduko dituen neurriak aplikatzen premiatzen duen mozioa, zeina Maribel García Malo andreak aurkeztu baitzuen eta

2017ko irailaren 29ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Hezkuntzako Goi Ikuskaritza indar dezan, modu azkar eta eraginkorrean jardun ahal izan dezan Konstituzio, bizikidetza edo nazioarteko itunekin kontraesanean hezkuntza-administrazioek eginiko jarduketan aurka.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko azaroaren 23an egindako bilkuran, ezetsi egin du mozioa, Espainiako Gobernua hezkuntzaren goi-ikuskaritza indar dezan premiatzen duena, modu azkar eta efizientean jardun ahal izan dezan Konstituzio, bizikidetza edo nazioarteko itunekin kontraesanean hezkuntza-administrazioek eginiko jarduketan aurka. Mozioa Nafarroako

Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuen eta 2017ko azaroaren 3ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroatik kanpora joan behar izan duten gazteen itzultzerako eta laneratzerrako pizgarriak emateko plan bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko azaroaren 23an, ezetsi egin du Nafarroako Gobernua Nafarroatik kanpora joan behar izan duten gazteen itzultzerako eta laneratzerrako pizgarriak emateko plan bat egitera premiatzen duen mozioa, zeina Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2017ko

azaroaren 21eko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza